

‘**URRALBURU AUZIA**’. Urralburu, Aragon eta haien emazteek isunak ordaintzeko eskatuko du gaur epaitegian HBk

«Gorenak aitortu du gaizkile politikoeekin begirunea izan duela», dio Herri Batasunak

Abokatuaren ustez, Madrilgo epaiak zigorrak jaitea positiboa ez izan arren, ona da «ustelkeria politikoa onartu eta zigortu» duelako



JOXE LACALLE

Pernando Barrena eta Andres Percas, atzo, prentsurrekoan.

Irene Arrizurieta | IRUÑEA

Andres Percas *Urralburu auzian* HBko akusazioa daraman abokatuaren arabera, Auzitegi Gorenak atzo kaleratutako kasuko behin betiko epaian alde onak eta txarrak ageri dira. Juridikoki «ona» da, politikari batzuen «ustelkeria onartu eta zigortu» duelako. Alta, ez da uste bezain baikorra, akusatu nagusien zigorrak —Gabriel Urralburu eta Antonio Aragon PSNko buru ohienak— jaitsi egin direlako. HBk uste du legea ez dela «bera» guztientzat eta Gorenak aitortu duela «gaizkile arrunta-ekin baino begirune handiagoa» izan dutela Nafarroako bi politikari ohiekin.

Percasen arabera, Urralburu-ri eta Aragoni zigorrak jaiteak ez du aurrekaririk. Horrelako lau auzitako epaiak kaleratu ditu Gorenak, eta beti Candido Pompidou epaileak. Aurreko hiruretan —bi Roldanen aurka eta beste bestea *Urralburu auzikoen* aurka— eroskeria eta Ogasunari iruzurra egitea leporatu zien arren, Pompidou Gorenako epaile txostengileak eroskeria bakarrik onartu du *Urralburu auziko* behin betiko epaian. Percasen iritziz, arrazoa «epailearen iritzi aldaketa da, eta ez juridikoa». Ildo horretan, azpimarratu du Gorenak berak onartu

ESANAK

ANDRES PERCAZ

(HBko abokatua)

«Zigorrak jaisteko arrazoa epailearen iritzi aldaketa izan da, eta ez juridikoa»

«Epaitegiak berak aitortu du zigorrak handiagoa merezi zutela»

PERNANDO BARRENA

(EHko Nafarroako parlamentaria)

«Kutxa automatiko bat erretzeagatik 10 urteko zigorra duzu, eta dirutza lapurtzeagatik lau urte»

duela politikari ohiei «begirune berezia» eman zaiela eta zigorrak ez dela «nahikoa».

HBko ordezkariak daraman abokatuak auzia ez dela bukatu adierazi zuen, Fernando Barrena EHko Nafarroako legebiltzarkidearekin atzo egin agerraduan. Hala, gaur bertan zigortuei Iruñeko zein Madrilgo epaiak ezarri isunak ordaintzeko eskatuko du Nafarroako Entzutegian. Urralburu eta Aragonen 600 milioi pezetakoa ordaindu behar dute, eta haien emazteek eta Esparza zein Roldanen 300 milioi pezetakoa. Hori ordaindu ezean, kartzela zigorrak handituko zaie. Jada 581 milioi pezeta berreskuratu ditu Nafarroako epaitegiak, baina oraindik dirua falta da, eraikuntza enpresetako perituek eskupekoetan 700 milioi ordaindu zituztela frogatu baitzen Iruñean.

Barrenaren irudiko, epaiak ez dio «gizarteari justiziarik egin» eta legea ez da «guztientzat bera». Izan ere, «gaztetxo bati kutxa automatiko bat erretzeagatik 10 urteko kartzela zigorrak ezartzen zaio, eta Urralburu, aldiz, lau urte ezarri dizkiote Ogasunari milioiak lapurtzeagatik».

Iruñeko epaia eman zutenen ustez, zigorrak bateragarriak dira

Erredakzioa | IRUÑEA

Rafael Ruiz de la Cuesta, *Urralburu auziko* Iruñeko epaia txostengilea, harrituta dago Gorenak eman duen behin betiko auziarekin, eta eroskeria eta Ogasunari iruzurra egitea «epai berean zigorrak daitezkeen delituak» direla azpimarratu du.

De la Cuesta Nafarroako Auzitegi Gorenako presidentek behin betiko epaia «onartzen» duela esan zuen. «Gorenak egin duen doktrina zuzenketa onartzen dugu, legearen jokoa horrelakoa delako batzuetan», azaldu zuen. Dena dela, epaile moduan bere irizpidea «bestelakoa» dela onartu zuen. Haren aburuz, Urralburu eta Aragonen lege kanpoko eskupekoak jasotzeagatik «euren ondasunak nabarmen handitu zituzten, eta bi zigorrak bateragarriak dira».

Bestalde, bi politikari ohien emazteei aurreko Kode Penala aplikatu izana ez da harritzeko, epailearen ustez. Olivia Balda eta Isabel Romeori hiruna urte leporatu zitzaizkien Iruñean eroskeria estaltzeagatik. Zigorrak preskribitu ez dezan, Auzitegi Gorenak izendapena aldatu du eta eroskeria estaltzaile esan beharrean «eroskeria egiteko ezinbesteko laguntzaile» direla esan du. Ildo berean, Gorenak bi zigorrak artean txikien egotzi izana «epaitegiaren funtzionamenduari» leporatu zion, eta Nafarroako Gorenak ematen dituen epaiak ez direla «behin betikoak» izaten esan zuen.

JARDUNALDIA

Landa Garapenerako Teknologia Berriak

5

Apirila

Miramongo Parke Teknologikoa - Auditorioa (Donostia)

Plaza mugatuak

☎ 900-10 10 21



MENDIKOI

Heziketa, Sustapena, Landa Garapena
Formación, Promoción, Desarrollo Rural

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

NEKAZARITZA ETA
ARRANTZA SAILA


DEPARTAMENTO DE
AGRICULTURA Y PESCA



ALTZARIAK AUKERAN

1000 metroko erakusketa - Prezio harrigarriak
Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko,
Lastaira eta Lastaira-azpikoan aukera handia
Sofa eta Besaulkiak, Logelak, Aulkiak, Mahaiak
Ehunka Altzairu %50ean
Mailatu txikiekin eta gabekoak

LA CHIMENEA
altzariak



Osinalde poligonoa
Tel.: 943 37 09 66 - USURBIL